

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Erabaki dugu bezeroengana iristeko bide egokiena gure kanal propioak erabiltzea dela, hau da, denda propioak eta Internet (webgune baten bidez) direla gure bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanal egokienak.

Denda fisikoa eta online dena izango dira jantziak saltzeko erabiliko ditugun salmenta kanalak.

Gure produktua ezaguna egingo da publizitatea eginez: albisteak jartzen telebistetan, egunkarietan... Hasieran, enpresa martxan jartzen dugunean, gure produktua ez da izango oso ezaguna, beraz eskaintzak egingo ditugu jende gehiago erakartzeko.

Erosketak Internet bidez egitean, kontsumitzaileek produktua lortzeko bi aukera izango dituzte. Alde batetik, produktua dendara bidaltzeko aukera izango dute. Iristen denean, abisatu egingo zaie eta jasotzera pasa ahal izango dira. Bestalde, bigarren aukera mezulari baten bidez jantzien banaketa eta bidalketa egitea izango da, ekintza hau aurrera eramateko garraio enpresetaz baliatuko gara.

